

Azterketak



Bidezko zerga
politika baten alde

2013ko Zerga Txostena

ELAren Azterketa Bulegoa

Non zer

AURKEZPENA	3
1. EUROPAKO FISKALTASUNAREKIKO ALDEA	3
2. NON DAGO ALDEA?	6
3. ZERGA HITZARTUEN FISKALTASUNA EAEN. DIRU-BILKETA ETA PRESIO FISKALA.	8
3.1 EAEko diru-bilketa	8
Diru-bilketa lurraldez lurralde	10
3.2 EAEko presio fiskala	10
Presio fiskala lurraldez lurralde	10
Presio fiskalaren bilakaera	11
3.3 Iruzur fiskala	14
a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZa)	15
b) Sozietateen gaineko Zerga	16
4. ZERGA HITZARTUEN FISKALTASUNA NAFARROAN. ^a DIRU-BILKETA ETA PRESIO FISKALA	19
4.1 Nafarroako diru-bilketa	19
4.2 Presio fiskala eta bilakaera	21
4.3 Iruzur fiskala	24
a) PFEZa	24
b) Sozietateen gaineko Zerga	26
5. EZTABAIDA FISKALA ETA ZENBAIT ONDORIO	26
5.1 EAE	27
5.2 Nafarroa	29
6. ELAREN PROPOSAMENAK ZERGA KONTUETAN.	30
6.1 Iruzur fiskalaren aurkako borroka	31
6.2 Sozietateen gaineko Zerga	31
6.3 Ondarearen gaineko Zerga	32
6.4 PFEZa	32
6.5 Gizarteak parte hartzeko mekanismoa	32
6.6 Erabateko eskumenak zerga arloan	33
6.7 Zergen arloko legeak Eusko Legebiltzarretik egitea	33



www.mrafundazioa.org
Twitter: @mrafundazioa



Estudios-Azterketak Saila, 27. Zenbakia
Bilbo, 2013ko martxoa

AURKEZPENA

Fiskaltasuna gure gizarte-ereduaren oinarritzko osagaia da. Funtsezko garrantzia du, hark eragiten baitu zenbat diru biltzen duten administrazioek zerga bidez, nola biltzen duten, bai eta administrazioen gastu maila ere.

Zergen inguruko eztabaida bereziki garrantzitsua da krisiak gogor jo duen honetan. Erakunde ofizialak etengabe ari dira murrizketak egiten, krisiaren ondorioz dirurik ez dagoela argudiatuta. Horra hor diskurtso nagusia, eta ez du ez erantzunik ez protestarik onartzen. Guk, ordea, jakin badakigu egia erlatiboa dela, eta gure egia ezagutu nahi dugu. Horrexegatik egin dizkiogu galdera hauek gure buruari: egia al da diru-sarrerarik eza krisiari zor zaiola? Zer neurritan eragin die abagune ekonomikoak murrizketei? Zer egoera dute Europan?

Txosten honen bidez, eztabaida mediatikotik kanpo dauden galdera horiei eta beste batzuei erantzuten saiatuko gara. Proposamena eta mobilizazioa, horra hor zer planteatzen dugun gizartean aldaketa eragiteko, eta aldaketa bestelako zerga-sistema batek lagunduta baizik ez da etorriko. Egungo sistema sustatzen duten interesak kontra izango ditugu, ez da bide samurra izango, eta borroka luzea bezain gogorra izango da. Itxaropena badago, ordea. Gure zerga-sistema ezagutzeak behar adina argudio jarriko digu eskura, ibilbidean aurrera egiteko.

Txosten honek bidean aurrerapausoak ematen laguntzeko tresna izan nahi du. Txostenak nagusiki erakutsi nahi du badela aldaketarako tarteak, bestelako zerga-sistema bat osa daitekeela, eta beste leku batzuetan bestelako errealitateak daudela, eta hori ere hemen egin daiteke. Beste behin ere, borondate politikoa behar da; hori besterik ez.

1. EUROPAKO FISKALTASUNAREKIKO ALDEA

Hego Euskal Herriko fiskaltasuna aztertzeko, konparazio bat egin beharra dago Europar Batasunaren zerga-sistemarekin. Konparazio horren bidez jakingo dugu zer posiziotan gauden nazioartean eta, horrela, jakingo dugu zer tarte dugun fiskaltasunaren alderdi bakoitzean. Bi fiskaltasunak ahal den guztietan alderatuko ditugu; izan ere, informaziorik ezak eraginda, ezin izango ditugu beti egin guk egin nahiko genituzkeen analisi guztiak. Hasteko, ikusiko dugu zer-nolako aldea dagoen Euskal Autonomia Erkidegoaren

(EAE), Nafarroaren eta Hego Euskal Herria (EH) osoaren eta 27 estatuen Europako Batasunaren (27-EB) presio fiskal guztiaren artean; hau da, hasiko gara alderatzen aberastasunaren edo Barne Produktu Gordinaren (BPGa) zer zati bideratzen den zerga hitzartuak (Foru Aldundiek kudeatutakoak), udal zergak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioak biltzera.

Hartara, 2010. urtera arte egin beharko dugu atzera. Urte hartan, 27-EBren presio fiskala BPGaren % 38,4 izan zen; EAERena, aldiz, %31,6. Hau da, BPGko 6,8 puntuko aldea zegoen. Bestela esanda, EAEn 4.430 milioi euro gutxiago bildu ziren, 27-EBn batez beste bildutakoa baino. Nafarroako zerga presioari dagokionez, BPGaren %27,7koa izan zen, batezbestekoa baino 10,7 puntu baxuagoa, eta honek, 2.070 milioi eurotako alde baliokidea dagoela esan nahi du. Bere osotasunean hartuta, HEHak zerga eta kotizazio sozialetara zuzenduriko BPGaren portzentaia %30,7koa izan zen, 27-EBko baino 7,7 puntu baxuagoa. Zera esan nahi du honek: HEHan BPGaren portzentaia berdina zuzendu izan balitz zerga eta kotizazio sozialak ordaintzera, bildurikoak baino 6.500 milioi euro gehiago bildu behar izango liratekela.

Krisi ekonomikoak jo duen urteotako presio fiskala nola bilakatu den aztertzen badugu, ikusiko dugu presioak % 1,9 egin duela behera EAEn, %5,1 Nafarroan, eta %2,6 HEHn; 27-EBn, aldiz, % 1. Hau da, krisiak (Europa osoa pairatzen ari dena) diru-bilketaren jaitziera eragin du; jaitziera, ordea, askoz handiagoa izan da HEHn, eta batez ere, Nafarroan 27-EBn baino. Honela, presioak 27-EBren adinako portzentajearen behera egin izan balu, bildutako dirutza baino 570 milioi euro gehiago eskuratuko ziren 2010ean EAEn, 780 Nafarroan, eta 1.350 HEHaren osotasunean.

Honako taula honetan ageri da zer posizio daukaten EAEk, Nafarroak eta HEHak 27-EBko estatuen artean. 8 estatutan bakarrik da presio fiskala txikiagoa EAeko baino. 19tan, berriz, presioa handiagoa da. Bestalde, EAERen eta 17-EBren arteko egoera alderatzen badugu, ohartuko gara Irlandan, Grezian eta Portugalen bakarrik dutela presio fiskal txikiagoa. Egoera larriagoa da HEHaren kasuan, sailkapenean 2 postu jaisten baita, Grezia eta Portugalen baino are zerga presio baxuagoa izatera helduz. Nafarroaren egoera da larriena, beste 2 postu jaisten baita zerrenda, Irlandakoa baino are presio fiskal baxuagoa izatera helduz. Ondorioak begi-bistakoak dira.

Presio fiskalaren bilakaera (%/BPGa). 27-EB, 2007-2010

Estatua	2007	2008	2009	2010
Lituania	29,5	30,0	29,2	27,1
Errumania	29,0	28,0	26,9	27,2
Letonia	30,6	29,2	26,7	27,3
Bulgaria	33,3	32,3	29,0	27,4
Nafarroa	32,8	30	29,6	27,7
Eslobakia	29,3	29,2	28,8	28,1
Irlanda	31,3	29,6	28,2	28,2
HEH	33,3	31,4	30,3	30,7
Grezia	32,6	32,2	30,5	31,0
Portugal	32,8	32,8	31,0	31,5
EAE	33,5	31,8	30,5	31,6
Polonia	34,8	34,3	31,8	31,8
Espainiar E.	37,1	33,0	30,7	31,9
Malta	34,8	33,8	34,3	33,3
Txekiar E.	35,9	34,4	33,6	33,8
Estonia	31,4	31,7	35,7	34,2
Erresuma B.	36,3	37,9	34,8	35,6
Txipre	40,1	38,6	35,3	35,7
Luxemburgo	35,7	35,5	37,6	37,1
Hungaria	40,4	40,3	40,1	37,7
Eslovenia	37,7	37,2	37,6	38,0
Alemania	38,7	38,9	39,2	38,1
27-EB	39,4	39,3	38,4	38,4
Herbehereak	38,7	39,2	38,3	38,8
Austria	41,7	42,7	42,6	42,0
Finlandia	43,0	42,9	42,6	42,1
Italia	42,7	42,7	42,8	42,3
Frantziar E.	43,4	43,2	42,0	42,5
Belgika	43,9	44,2	43,4	43,9
Suedia	47,3	46,4	46,7	45,8
Danimarka	48,9	47,8	47,7	47,6

Iturriak: Eurostat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Eusko Jaurlaritza, Eustat, Nafarroako Gobernua, IEN

2. NON DAGO ALDEA?

Presio fiskala hiru ataletan banatua dago: zeharkako zergak, zuzenekoak, eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak. EAEk hiru atal horietan zer-nolako posizio konparatiboa duen aztertzen badugu, guztietan ere aldea badagoela ikusiko dugu. Zehazki:

- Zuzeneko zergetan, presio fiskala BPGaren % 8,9 izan zen EAEn. EBn, aldiz, % 12,6. Horrek esan nahi du alderaketa horretan 3,7 BPG-puntu beherago dagoela Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroari dagokionez, zuzeneko zergen presio fiskala BPGaren %7,5koa izan zen, 27-EBn baino 5,1 puntu baxuagoa. HEHak BPGaren %8,6a zuzendu zuen zerga eta kotizazio sozialen ordainketara, Europako batzbesteko zerga presioa baino BPGaren 4 puntu gutxiago. Zuzeneko zergen presioan dago alderik handiena, 27-EBrekin alderatuta.
 - Zeharkako zergetan, EAEk BPGaren % 9,8ko presio fiskala zeukan; hau da, 3,5 BPG-puntu gutxiago, 27-EBren BPGaren % 13,2 baino. Nafarroako presio fiskala BPGaren %8,2koa izan zen, Batasunekoa baino 5 puntu baxuagoa. Era honetara, zeharkako zergen presioa HEHan BPGaren %9,4koa izan zen, 27-EBkoa baino 3,8 puntu baxuagoa. Atal honetan daukagu posiziorik txarrena Europako sailkapenean, ez baitago presio fiskal txikiagoko estaturik 27-EB osoan.
 - Gizarte Segurantzarako kotizazioetan, bidezko presio fiskala BPGaren % 12 izan zen EAEn. Hau da, 27-EBren % 12,7ko presioa baino 0,7 puntu txikiagoa. Nafarroak bere BPGaren %11,1 zuzendu zuen Gizarte Segurantzako kontribuzioetara, 27-EB baino 1,6 puntu gutxiago. Gizarte Segurantzako kontribuzioen presio fiskala BPGaren %11,8koa izan zen HEHn, 27-EBeko batzbestekoa baino BPGaren 0,8 puntu baxuagoa.
-

**Zuzeneko zergen, zeharkakoan eta gizarte
segurantzarako kotizazioen presio fiskala (%/BPGa).
27-EB, 2010(*)**

Estatua	Zuzenak	Zeharkakoak	G.S. Kotizazioak
Lituania	4,7	12,1	10,4
Bulgaria	5,1	15,2	7,1
Eslobakia	5,4	10,4	12,3
Errumania	6,2	12,3	8,8
Txekiar E.	7,0	11,5	15,3
Polonia	7,0	13,8	11,1
Letonia	7,4	11,5	8,4
Nafarroa	7,5	8,2	11,1
Grezia	7,8	12,3	10,9
Eslovenia	8,3	14,6	15,2
Hungaria	8,5	17,2	12,0
Portugal	8,9	13,6	9,0
EAE	8,9	9,8	12,0
HEH	8,6	9,4	11,8
Espainiar E.	9,9	10,6	12,3
Irlanda	10,7	11,7	5,8
Frantziar E.	11,0	15,1	16,7
Txipre	11,1	15,6	9,0
Alemania	11,2	11,4	15,5
Herbehereak	12,2	12,5	14,1
27-EB	12,6	13,2	12,7
Austria	12,7	14,7	14,6
Malta	13,4	13,9	6,0
Luxemburgo	14,4	11,9	10,8
Italia	14,7	14,2	13,4
Errsuma B.	15,8	13,2	6,7
Finlandia	16,1	13,5	12,5
Belgika	16,3	13,3	14,2
Suedia	19,4	18,2	8,3
Danimarka	29,9	16,9	1,0
Estonia	14,2	14,2	13,1

*Hurriak: Eurostat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Eusko
Jaurlaritza, Eustat, Nafarroako Gobernua, IEN*

(*) Gizarte Segurantzaren, zuzeneko eta zeharkako zergen presio fiskalaren batura 0,9 puntu txikiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira dagoen presio fiskala baino, EAEk eskema honetan sailka ez daitezkeen bestelako diru-sarrerak ere badituelako.

3. ZERGA HITZARTUEN FISKALTASUNA EAEN. DIRU-BILKETA ETA PRESIO FISKALA.

3.1 EAEKO DIRU-BILKETA

EAEko zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa (Foru Ogasunek kudeatzen dituztenak) 11.408 milioi euro izan da 2012an; hau da, 2011n baino 72,7 milioi gutxiago bildu dira. 2007tik hona, diru-bilketak zer bilakaera izan duen aztertzen badugu (hau da, egungo krisia hasi aurre-urretik hona), ikusiko dugu beherapena handiagoa izan dela, 2012an 2.363,9 milioi euro gutxiago bildu baitira 2007an baino. Hau da, zerga hitzartuen diru-bilketak % 0,6 egin du behera, 2011ko datuen aldean; eta % 17,2, 2007ko datuen aldean.

Zeharkako zergen diru-bilketa (milioika eurotan). EAE, 2007-2012

2007	2008	2009	2010	2011	2012
13.772,1	12.834,2	10.792,1	11.700,0	11.480,9	11.408,2

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Gobernatzen dutenek sinestarazi nahi digute krisiak eraginda erori direla diru-sarrerak. Baina datuek erakusten dute BPGa 2007ko maila berean dagoela, 2007an 66.427,5 milioi euro izan baitzen, eta 2012an, 66.223,3 milioi euro. BPGa, beraz, % 0,3 jaitsi da. Diru-sarrerak, aldiz, % 17,2, arestian azaldu dugun bezala; eta hori gure zerga-sistema oso txarra delako.

2012ko diru-bilketa zuzeneko zergetatik ala zeharkakoetatik datozen aztertzen badugu, gutxi gorabehera zati berdinetan banatua dagoela ikusiko dugu. Honek zera esan nahi du, biztanleria guztia maila berdinean zergapetzen dituzten zergak, eta errenta maila kontuan hartuta zergapetzen dituztenak antzeko pisua dutela:

- Zeharkako zergen bidezko diru-bilketa 5.599,7 milioi euro izan da; hau da, diru-bilketa guztiaren % 49,1. Zeharkako zergak % 2,2 egin dute behera, 2011. urtearekin alderatuta.
- 2011ren aldean % 1 igo ondoren, zuzeneko zergak 5.698,8 milioi euro izan dira; guztiaren % 50.
- Gainerako zergen bidez 109,7 milioi euro sartu dira; guztiaren % 1, alegia.

Zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa (milioika eurotan, %/gutuzkoa eta aldaketa %). EAE, 2012

	Miloi €	%	% Ald.
Zeharkako Z.	5.599,7	49,1%	-2,2%
Z. Zuzenak	5.698,8	50,0%	1,0%
Besteak	109,7	1,0%	-0,4%
Guztira	11.408,2	100,0%	-0,6%

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Interesgarria da aztertzea nola banatua dagoen zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa:

- Laneko PFEZ bidezko diru-bilketa 4.404,5 milioi euro izan da; 2011n, baino %1 gutxiago. Hala ere, zuzeneko diru-bilketaren % 77,3 izan da.
- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko errenten bidezko diru-bilketa 1.633 milioi euro izan da; hau da, 2011ren aldean, mantendu egin da. Zuzeneko diru-bilketaren % 28,7 izan da, eta honela osatua egon da:
 - Sozietateen gaineko Zergak 1.131 milioi euroko diru-bilketa eragin du; hau da, 2011n baino % 2,5 gutxiago, eta zuzeneko zergen bidezko diru-bilketaren % 19,9 izan da.
 - Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko PFEZk 501,2 milioi euroko diru-sarrerak eragin ditu; hau da, 2011n baino % 6,1 gehiago, eta zuzeneko diru-sarreraren %8,8 da .

Zuzeneko hitzarturiko zergen bidezko diru-bilketa, zerga motaren arabera, egitura eta bilakaera. EAE, 2011-2012

	Miloi €	%	% Ald.
Lanaren PFEZ	4.404,5	77,3%	-1,0%
· Sozietate Gaineko Zerga	1.131,8	19,9%	-2,5%
· Enpr.,Prof.,Kap. PFEZ	501,2	8,8%	6,1%
Enpr.,Prof.,Kap. Errentak	1.633,0	28,7%	0,0%
Besteak	-338,7	-5,9%	-22,5%
Z. Zuzenak Guztira	5.698,8	100,0%	1,0%

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Hau da, lanaren errentak ia 3 aldiz gehiago dira enpresen, profesionalen eta kapitalaren errentak baino, zuzeneko zergen bidezko diru-bilketan.

Diru-bilketa lurraldez lurralde

Lurraldez lurraldeko diru-bilketa aztertzen badugu, hau ikusiko dugu:

- Arabako Aldundiak 1.781,2 milioi euro bildu ditu; 2011n baino % 2,7 gutxiago. Herrialde horretan jaitsi da diru-bilketa gehien.
- Gipuzkoako Aldundiaren diru-bilketa 3.615,7 milioi euro izan da; hau da, aurreko urtean baino % 0,5 gehiago. Diru-bilketa, beraz, igo egin da; ez, ordea, beste bietan.
- Bizkaiko Aldundiak 6.011,4 milioi euro bildu ditu; % 0,7, gutxiago.

EAEko diru-bilketa fiskala lurraldez lurralde 2012 (milioika eurotan eta aldaketa %)

	Milioi €	% Aldaketa
Araba	1.781,2	-2,7
Gipuzkoa	3.615,7	0,5
Bizkaia	6.011,4	-0,7
EAE	11.408,2	-0,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza

3.2 EAEko PRESIO FISKALA

Presio fiskala lurraldez lurralde

Zerga hitzartuen bidezko presio fiskala BPGaren % 17,2 izan da 2012ko urtealdian. Alde txikia dago herrialdeen artean: hots, Bizkaian % 17,6 izan da; Araban, % 17,1, eta Gipuzkoan, % 16,7. Hiruren artean, Gipuzkoan bakarrik igo da zertxobait diru-bilketa, baina zerga hitzartuen bidezko presio fiskalak txikixeagoa izaten jarraitzen du beste herrialdeetan baino.

**EAEko presio fiskala lurraldez lurralde.
2012 (%/BPGa)**

	BPG %
Araba	17,1
Gipuzkoa	16,7
Bizkaia	17,6
EAE	17,2

Iturriak: Eusko Jaurlaritzza, Eustat

Datuak ikusita, esan dezakegu egoera fiskala oso homogeneoa dela 3 lurraldeetan.


Presio fiskalaren bilakaera

Zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera aztertzeak aukera emango digu diru-bilketaren inguruan zer gertatu den jakiteko, BPGaren bilakaera kontuan hartuta.

Grafiko honetan ageri da zerga hitzartuen bidezko presio fiskala jaitsi egin dela EAEn; 2007an BPGaren % 20,7 izan baitzen, eta 2012n, aldiz, % 17,2. Horrek esan nahi du 2007ko presio fiskalari eutsi izatera, bildutakoak baino 2.321,6 milioi euro gehiago bildu behar izango zirela 2012an.

Jaitsiera zuzeneko zergetan eta zeharkakoetan gertatu da. Zuzeneko zergen presio fiskala honela jaitsi da: 2007an, BPGaren %10,1 izan zen, eta 2012an, aldiz, % 8,6. Zeharkako zergen presio fiskala honela jaitsi da: 2007an, BPGaren % 10,5 izan zen, eta 2012an, aldiz, % 8,5.


**Zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera. EAE.
2007-2012 (%/BPGa)**



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

BEZak eraginda jaitsi da zeharkako zergen presio fiskala. Zerga mota horren bidezko presio fiskala BPGaren % 7,3 izan baitzen 2007an, eta 2012an, aldiz, % 6,1. Zerga Berezien bidezko presio fiskalak bere horretan iraun du aztertu dugun epealdian.

Zeharkako zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera. EAE. 2007-2012 (%/BPGa)




Iturriak: Eusko Jaurlaritz, Eustat

Zuzeneko zergen presio fiskala jaitsi egin da, enpresen, profesionalen eta kapitalaren errentak jaitsi direlako, PFEZaren presioa igo egin baita aztertutako urteetan. Zehazki:

- Lanaren PFEZaren presio fiskala PBGaren % 6,1 izan zen 2007an, eta % 6,7, 2012an. Hau da, zuzeneko zergen gainerako osagaien bilakaera lanaren PFEZaren bilakaera berbera izan balitz, zuzeneko zergen presio fiskala igo egingo zen 2007tik 2012ra.
- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskala jaitsi egin da, 2007an BPGaren % 3,8 izan baitzen, eta 2012an, aldiz, % 2,5, Sozietateen gaineko Zergan jaitsiera izan delako. Izan ere:
 - Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala honela jaitsi egin da: 2007an, BPGaren % 3,1 izan zen, eta 2012an, aldiz, % 1,7.
 - Enpresen, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskalak BPGaren % 0,8 izaten jarraitu du .

Zuzeneko zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera. EAE. 2007-2012 (%/BPGa)



Iturriak: Eusko Jaurlaritz, Eustat

3.3 IRUZUR FISKALA

Ikusi dugunez, EAEko presio fiskala gure nazioarteko ingurunean dagoena baino askoz ere txikiagoa da, hainbat faktorek eraginda; baina zalantzarik gabe, arrazoi nagusia zergak ez ordaintzea da. Batetik, EAEko lege-mekanismo batzuek zerga gutxiago ordaintzeko aukera ematen dute, ingeniariak fiskala erabilia. Begibistakoa da errenta altuek, kapital-errentek eta enpresek horrelako figurak erabiltzen dituztela. Baina, bestetik, urtetan salatu dugun bezala, gure gizartean ere iruzur maila altua dago. Ez dago argitasun handirik iruzur fiskalari buruz, baina Gipuzkoako Batzar Nagusietako iruzur fiskalaz sortutako Batzorde batetik jakin badakigu urtean bakarrik ikuskatzen direla errenta enpresarialen, profesionalen eta artistikoen % 1,2. Datu horrek salatzen du zer motibazio duten soldatari lotuta ez dauden errentek iruzurra egiteko, jakin badakitelako ia ez dagoela posibilitaterik haiei ikuskaritza-lanik egiteko. Baina era berean datu horrek agerian

uzten du zeinen ahalegin txikia egiten duten Foru Ogasunek iruzurrari aurre egiteko.

Iruzurrari buruzko azterlan ofizialik ez badago ere, adierazle batzuek argitasun pixka bat emango digute PFEZean eta Sozietateen gaineko Zergan gertatzen den iruzur fiskalaz. Ondoren aztertuko dugu.

a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZa)

Datuen arabera, 2009. urtean (azken informazioa urte horri dagokio), PFEZean aitorturiko errentaren % 91,7 lanaren errentetatik dator; aldiz, % 6,4 bakarrik dator errenta enpresarial, profesional eta artistikoetatik (beste %1,9 gainerako errentetatik iritsi zen). Hau da, PFEZean aitortzen den ia errenta guztia lanaren errentetatik dator.

**Errendimenduen pisu erlatiboa PFEZean (%).
EAE, 2009**

Lana	Enpr., Prof., Art.	Besteak
91,7	6,4	1,9

Iturria: Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratua

Bestaldetik, lanaren errentek, bana beste, 22.640,3 euroko errenta aitortu zuten 2009. urtealdian; hau da, jarduera ekonomikoen bidez batez beste aitortutako errenta baino 10.413,8 euro gehiago. Horrek argi eta garbi jartzen du agerian jarduera ekonomikoak aitortzen dituztenek iruzur fiskala egiten dutela.

Ez hori bakarrik. 1999tik 2009ra, lanaren errenta aitortua 7.279,8 eurotan igo da, batez beste; aldiz, jarduera ekonomikoen bidez batez beste aitortu den errenta 1.111,7 euro bakarrik igo da. Hau da, 10 urte honetan, bien arteko aldea 6.168,1 eurotan handitu egin da, edo bestela esanda, jarduera ekonomikoak aitortzen dituztenek egiten duten iruzurra hazi egiten da urtez urte.

**PFEZan batez beste aitortu den errenta (€).
1999-2009**

	Lana	Jarduera Ekonomikoak	Diferentzia
1999	15.360,5	11.114,8	4.245,7
2000	16.448,2	10.937,1	5.511,0
2001	17.114,9	11.114,4	6.000,5
2002	17.684,4	11.433,8	6.250,6
2003	18.315,3	11.726,7	6.588,6
2004	18.989,8	12.012,9	6.976,9
2005	19.778,4	12.273,9	7.504,5
2006	20.642,8	12.491,9	8.150,9
2007	21.274,4	13.140,9	8.133,5
2008	22.502,8	12.656,0	9.846,8
2009	22.640,3	12.226,5	10.413,8
1999-2009	7.279,8	1.111,7	6.168,1


Iturria: Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratua

b) Sozietateen gaineko Zerga

Arestian esan dugun bezalaxe, iruzurraz gain, eskura dauden mekanismoen bidez, zerga gutxiago ordaindu daitezke legez. Horixe gertatzen da, esate baterako, tasa efektiboaren eta tasa nominalaren arteko aldeari dagokionez; hots, enpresek ustez tasa nominalaren arabera ordaindu beharko lukete zerga, baina azkenean, tasa efektiboaren arabera ordaintzen dute. Sozietateen gaineko Zergaren batez besteko tasa nominala (hainbat enpresa mota dira, eta bakoitzak tasa nominal desberdinak ditu) % 25,5 izan da, 2009an. Tasa hori, ordea, egiazki erdira murriztu da, salbuespenen, kenkarien, eta abarren ondorioz. Horrenbestez, EAEko sozietateek tasa efektiboaren arabera ordaindu dute zerga: hots, % 13,1.

Gainera, beheko grafikoan agerian dagoen bezalaxe, hala tasa nominalak nola efektiboak etengabeko jaitsiera izan dute azken 5 urte honetan. Zehazki, tasa nominala % 30,5 zen 2004an, eta 2009an, aldiz, % 25,5. Beraz, 5 puntutan jaitsi da. Sozietateen gaineko Zergaren tasa efektiboa ere jaitsi egin da, 2004an % 17,5 baitzen, eta 2009an, aldiz, % 13,4. Beraz, 4,4 puntu jaitsi da azken 5 urte honetan.

Tasa nominalaren eta efektiboaren bilakaera sozietateen gaineko zergan. 2004-2009 (%)



Iturria: Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratua

EAEko sozietateek aitortzen dituzten etekinak aztertzetik aurkituko dugun aldagaietako batek iruzurra dagoela adieraziko digu. Zehazki:

- 30.979 enpresak likidazio-oinarri negatiboa aitortu zuten 2009an; hau da, enpresen % 44,4k galerak izatea aitortu zuen.
- Enpresen % 31,4k 6.000 eurotik beherako etekinak izatea aitortu zuen.
- Enpresen % 13,3k 6.000tik 60.000 eurora bitarteko etekinak aitortu zituen.
- Enpresen % 6,5ek 60.000tik 300.000 eurora bitarteko diru-sarrerak aitortu zituen.
- Enpresen % 1,6k 300.000tik 600.000 eurora bitarteko etekinak aitortu zituen.
- Enpresen % 2,8k bakarrik aitortu zituen 600.000tik gorako etekinak.

Beraz, enpresen ia erdiek galerak aitortu dituzte, bai eta etekin txikiak ere. Begi-bistakoa denez, horrek ez du zerikusi handirik egiazki gertatzen denarekin; zerikusi handia dauka, ordea, zerga gutxi ordaintzeko helburuarekin.

**Sozietateen gaineko errentako aitorten kopurua.
EAE. 2009**

Oinarri likidagarriaren tartekak	Aitorten kopurua	Aitorten %
<0	30.979	44,4%
0-6.000	21.869	31,4%
6.000-60.000	9.292	13,3%
60.000-300.000	4.510	6,5%
300.000-600.000	1.100	1,6%
>600.000	1.979	2,8%
Guztira	69.729	%100

Iturria: Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratua

Hala ere, EAEko enpresek Sozietateen gaineko Zergan BPGarekiko ordaintzen dutena askoz ere txikiagoa da, Europan batez beste ordaintzen dena baino. Datuek erakusten dute Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala BPGaren % 1,5 izan zela EAEn, 2010an; hau da, 27-EBko presio fiskala baino 0,9 puntu txikiagoa. Horrela, 27-EBk adinako presio fiskala izatera, EAEko enpresek egiazki ordaindu zutena baino 586,1 milioi euro gehiago ordaindu beharko zuten 2012an.

Batasuneko 4 estatuk bakarrik izan zuten presio fiskal txikiagoa Sozietateen gaineko Zergan: Letoniak, Lituaniak, Hungariak eta Estoniak, hain zuzen. Eta lau horietatik bakar bat ere ez da lehenagoko 17-EBko estatua.

Ondoko taula honetan, halaber, ageri da zer-nolako bilakaera izan duen Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskalak, 2007. urtetik hona. Presioa, horrela, BPGaren 1,6 puntu jaitsi da EAEn. 27-EBn, ordea, jaitsiera, batez beste, 0,9 puntukoa izan da. Horrela, EAEko presio fiskala, lehenago, 27-EBkoa baino 0,2 puntu txikiagoa zen, eta orain, aldiz, 0,9 puntu txikiagoa da. Aldea handitu da, beraz. Horrenbestez, EAEko presio fiskala 27-EBko batez bestekoa adina jaitsi izan balitz (BPGa-puntutan), EAEn sozietateen gaineko zerga ordaintzen duten enpresek ordaindutakoa baino 455,8 milioi gehiago ordaindu beharko zituzten.

**Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala
(%/BPGa). 27-EB, 2010**

	2007	2008	2009	2010	2007-2010
EAE	3,1	2,5	1,9	1,5	-1,6
27-EB	3,3	3,0	2,2	2,4	-0,9

Iturriak: Eurostat, Eusko Jaurlaritz, Eustat

4. ZERGA HITZARTUEN FISKALTASUNA NAFARROAN. DIRU-BILKETA ETA PRESIO FISKALA

4.1 NAFARROAKO DIRU-BILKETA

Nafarroako zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa 2.978,6 milioi euro izan da 2012an; hau da, 2011n baino 169,1 milioi gutxiago bildu dira; % 5,4 gutxiago.

Krisi garai honetan, zerga hitzartuen bidezko diru-bilketak Nafarroan zer bilakaera izan duen aztertzen badugu, ikusiko dugu 2012an Foru Ogasunak 618,1 milioi gutxiago bildu dituela 2007an baino. Hau da, diru-bilketak % 17,2 egin du behera, egungo krisi garaia hasi aurre-aurretik hona.

Agintariek diote murrizketak krisiaren erruz egin behar izan dituztela, eta sinestarazi nahi digute krisiak eraginda erori direla diru-sarrerak, eta ezinbestekoa dela doikuntzak egitea. Baina datuek argudio hori gezurtatu dute. Izan ere, 2007tik hona, diru-sarrerak % 17,2 jaitsi dira, eta BPGa, aldiz, % 9,6 igo da. Hau da, gezurra da BPGa Nafarroan 2007tik hona jaitsi egin dela.

Zeharkako diru-zergen bidezko diru-bilketaren eta BPGaren bilakaera. Nafarroa, 2007-2012.

	2007	2011	2012	Ald. % 2007-2012
Diru-bilketa	3.596,6	3.147,7	2978,6	-17,2
BPGa	18.330	20.060	20089	9,6

Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

Diru-bilketa zuzeneko zergetatik edo zeharkakoetatik datozen xeheki aztertzen badugu, hauxe ikusiko dugu:

- Zeharkako zergen bidezko diru-bilketa 1.540,8 milioi euro izan da; hau da, diru-bilketa guztiaren % 51,7. Horrek agerian jartzen du jende guztiak berdin-berdin ordaintzen dituen zergen pisua (jendearen errenta alde batera utzita) handiagoa dela pertsonen errentaren arabera ordaintzen diren zergen pisua baino.
- Zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa 1.409,7 milioi euro izan da; hau da, diru-bilketa guztiaren % 47,3. Zuzeneko zergen bidezko diru-sarrerak % 4 igo dira, 2011ren aldean.
- Aurreko urtealdiarekin alderatuta % 36,6 murriztu ondoren, gainerako diru-sarrek 28,1 milioi euroko diru-bilketa eragin dute 2012an; hau da, diru-sarrera guztien % 0,9.

Zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa (milioika euro, %/guztizkoa eta aldaketa %). Nafarroa, 2010-2012

	Milioi €	%	% Ald.
Zeharkako Zergak	1540,8	51,7	-11,8
Zuzeneko Zergak	1409,7	47,3	4
Gainerakoa	28,1	0,9	-36,7
Zergak, Guztira	2978,6	100	-5,4

Iturria: Nafarroako Gobernua

Zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa nola dagoen banatua aztertzen badugu, hauxe ikusiko dugu:

- Laneko PFEZ bidezko diru-bilketa 1.058,5 milioi euro izan da; hau da, zuzeneko diru-bilketa % 75,1%. Diru-sarrera horiek % 0,9 jaitsi dira, 2011koen aldean. Hau da, zuzeneko zergen bidez bildutako 4 eurotik 3 baino gehiago laneko PFEZari dagozkio.
- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren errentek 352,6 milioi euroko diru-bilketa eragin dute; hau da, zuzeneko diru-bilketa % 25, eta 2011. urtean baino % 2,5 gutxiago. Honela osatua egon da:
 - 2011ren aldean % 5,5 jaitsi ondoren, Sozietateen gaineko Zergak 201,4 milioi euroko diru-bilketa eragin du; hau da, zuzeneko zergen % 14,3.
 - Enpresen, profesionalen eta kapitalaren PFEZak 151,2 milioi euroko diru-bilketa eragin du 2012an; hau da, zuzeneko zergen % 14,3.

neko diru-bilketaren % 10,7, eta % 1,7 gehiago aurreko urtealdiarekin alderatuta.

Zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa, zerga motaren arabera, egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2011-2012

	Miloi €	%	Ald. %
Laneko PFEZ	1058,5	75,1	-0,9
· Sozietate Zerga	201,4	14,3	-5,5
· Enpr., Prof., Kap. PFEZ	151,2	10,7	1,7
· Enpr., Prof., Kap. Errentak	352,6	25	-2,5
Beste Batzuk	-1,4	-0,1	-98,1
Zuzeneko Zergak, Guztira	1409,7	100	4

Iturria: Nafarroako Gobernua


4.2 PRESIO FISKALA ETA BILAKAERA

Nafarroako zerga hitzartuen presio fiskala % 14,8 izan da 2012an; hau da, Nafarroan eragindako 100 euro bakoitzetik 14,8 € zerga hitzartuen diru-bilketara bideratu direla.

Honako grafiko honetan ageri den bezalaxe, 2012ko presio fiskala aztertu dugun epealdiaren presiorik txikiena izan da. Izan ere, presio fiskalaren joera beheranzkoa izan da etengabe, eta horrek esan nahi du nafar Gobernuaren ahaleginak behera egin duela, zerga hitzartuen bidezko diru-bilketari dagokionez. Zehazki, 2012an egin izatera 2007an egindako ahalegin bera, bildutakoak baino 966 milioi gehiago bildu behar izango ziren; hau da, % 32,4 gehiago.

Zeharkako zergen presio fiskala BPGaren % 7,7 izan da 2012an; hau da, 2011n baino puntu 1 gutxiago, eta 1,9 puntu gutxiago 2009an baino. Zuzeneko zergen presio fiskala, aldiz, % 7,0 izan da; hau da, 2011koa baino 0,2 puntu handiagoa, eta 2,8 puntu txikiagoa 2007koa baino: bestela esanik, 2007an BPGaren % 9,8 izan zen, eta 2012an, aldiz, % 7,0.

Zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera Nafarroan 2007-2012 (%/BPGa)




Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

Honako grafiko honetan ageri da zer-nola bilakatu den zeharkako zergen presio fiskala, zerga bereziak eta BEZa berezita:

- Zerga Berezien presio fiskala BPGaren % 1,9 izan da, 2011tik hona 0,3 puntu jaitsi ondoren, eta 0,4 puntu, berriz, 2007tik hona.
- BEZaren presio fiskala BPGaren % 5,3 izan da, 0,7 puntu erori baita 2011tik aurrera, eta 1,1 puntu, berriz, 2007tik hona.

Zeharkako zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera Nafarroan 2007-2012 (%/BPGa)




Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

Zuzeneko zergen presio fiskalaren bilakaerari dagokionez, berriz, honako grafiko honek erakutsiko digu zer-nolako jaitsiera gertatu den zuzeneko zergetan. Laneko PFEZa, dena den, parametro beretan mantentzen da:

- Laneko PFEZaren presio fiskala 2011ko indize berean mantendu da (% 5,3), eta 2007koa (% 5,2) baino zertxobait gaintetik.
- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskala 2011ko puntu berean mantendu da, hau da, BPGaren % 1,8n. Baina 2007tik hona, % 56,1 jaitsi da (urte hartan % 4,1 baitzen).
 - Enpresen, profesionalen eta kapitalaren PFEZak BPGaren % 0,8n mantendu du bere presioa, 2007an bezalaxe, eta 2011n baino 0,1 puntu gehiago izan da.
 - Sozietateen gaineko Zergaren presioak behera egiten segitu du, eta 2012an, BPGaren % 1,0 izan da; hau da, 2011n baino 0,1 gutxiago, eta 2007an baino 2,2 puntu gutxiago. Nafarroako sozietateek 2007an egindako ahaleginari eutsi

izatera, ordaindutakoak baino 443,1 milioi euro gehiago ordaindu behar izango zituzten.

Zuzeneko zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera Nafarroan. 2007-2012 (%/BPGa)



Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

4.3 IRUZUR FISKALA

a) PFEZa

PFEZean aitorturiko errentaren jatorria aztertzen badugu, ikusiko dugu zerga horren % 86,1en jatorria laneko errentak izan zirela. Errenta enpresarialen, profesionalen eta artistikoek, aldiz, zerga horren % 5,2 bakarrik eragin zuten (gainerako % 8,7 gainerako errentetatik etorri zen).

**Errendimenduen pisu erlatiboa PFEZean (%).
Nafarroa, 2010**

Lana	Enpr., Prof., Art.	Gainerakoa
86,1	5,2	8,7

Iturria: Nafarroako Gobernua

Lanaren errentek, bana beste, 24.986,7 euroko errenta aitortu zuten 2010ean, PFEZaren bidez; hau da, jarduera profesionalak aitortzen dituztenek (8.724,5 euro) baino 16.262,2 euro gehiago, eta jarduera enpresarialak aitortzen dituztenek (6.139 euro) baino 18.847,6 euro gehiago batez beste. Hau da, laneko errenta aitortua, batez beste, 2,9 aldiz handiagoa da errenta profesionalek batez beste aitortu dutena baino, eta 4 aldiz handiagoa, errenta enpresarialek batez beste aitortu dutena baino.

Gainera, urtetik urtera gero eta handiagoa da aitorturiko errenta moten arteko aldea. Izan ere, laneko errenta aitortua batez beste 6.028 eurotan handitu da 2000tik hona; aldiz, errenta profesionala batez beste 1.997,4 eurotan jaitsi da, eta enpresariala 2.151,6 eurotan. Hau da, batez beste, 8.026 eurotan handitu da laneko errenta aitortuaren eta errenta profesional aitortuaren arteko aldea, eta 8.180,3 eurotan, laneko errenta aitortuaren eta errenta enpresarialaren arteko aldea.

**PFEZean batez beste aitortu den errenta (€).
Nafarroa, 2000-2010.**

	Lana	Profesionala	Enpresariala
2000	18.958,0	10.721,9	8.290,7
2001	18.704,5	10.427,9	8.374,0
2002	19.221,4	10.545,1	8.217,2
2003	20.309,3	10.831,5	8.464,3
2004	21.100,5	10.124,1	8.514,3
2005	21.157,8	10.602,1	8.296,4
2006	22.278,8	11.106,9	8.393,2
2007	23.362,5	10.584,0	8.423,9
2008	25.059,1	10.130,7	7.203,2
2009	25.019,4	9.220,1	6.237,6
2010	24.986,7	8.724,5	6.139,0
2001-2010	6.028,7	-1.997,4	-2.151,6

Iturria: Nafarroako Gobernua

b) *Sozietateen gaineko Zerga*

Sozietateen gaineko Zergan ere ematen da iruzur fiskala. Eta hori da zerga honetako presio fiskala Europar Batasuneko bataz besteko presio fiskala baino askoz beherago egotearen arrazoietakoa bat.

Zehazki, Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala % 2,4koa izan zen 27-EBean 2010ean, Nafarroan % 1 izan zen bitartean. Honek suposatzen du Nafarroako enpresek proportzioan 270 milioi euro gutxiago ordaindu zituztela 27-EBeko bataz bestekoa baino. Izan ere, Europar Batasuneko 27 Estatuak kontutan hartuta, soilik Letonia eta Lituaniako enpresek izan zuten presio fiskal baxuagoa.

Ondorengo taulan ageri da krisia hasi zenetik (2007-2010) nola Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala 2,2 puntu jaitsi den Nafarroan, 27-EBean 0,9 puntu jaitsi den bitartean Honela, Nafarroako presio fiskala Europakoaren maila berean jaitsi izan balitz, Nafarroako enpresek ordaindu zutena baino 250 milioi gehiago ordaindu behar izango lituzkete.

**PFEZean batez beste aitortu den errenta (eurotan).
Nafarroa, 2000-2010.**

	2007	2008	2009	2010	2007-2010
Nafarroa	3,2	2,2	2,2	1,0	-2,2
27-EB	3,3	3,0	2,2	2,4	-0,9

Iturria: Eurostat, Nafarroako Gobernua, IEN

5. EZTABAIDA FISKALA ETA ZENBAIT ONDORIO

Diru-sarreretan izan den murrizketaz baliatzen ari dira aurrekontuetako murrizketak egiteko eta, horren ondorioz, txarrera egin du osasun, hezkuntza, gizarte zerbitzu eta abarren kalitateak. Gainera, lan eta gizarte eskubideak murrizteko neurriak hartu dira behin eta berriz (pentsioak, gizarte prestazioak, sektore publikoko soldatak, etab.).

Politika horiek hondamendira garamatzate eta gizartean ondorio ikaragarriak dituzte. Hego Euskal Herriko langabezia %16,3 da; Europar Batasunean, ordea, batez beste % 10,7. Hemengo langabezia, beraz, Europakoa baino askoz ere handiagoa da. Langabeziak, gainera, oso azkar jarraitzen du handitzen, azken datuek erakutsi duten bezala.

Hau da, gero eta ageriagoan dago politika neoliberalen porrota, langabezia, prekaritatea, pobrezia, gizartearen babesgabetasuna eta desberdintasunak handitzen ari baitira.

Politika fiskala alderdikarien arteko erdigunera iritsi da; hau da, talde politikoek alderdikeriaz jokatzeko boto gehiago lortu nahian. Alderdiek esaten dutenari erreparatuta, ematen du den-dena emateko prest daudela “iraultza fiskala” lortzeko.

Esatetik egitera, ordea, tarte handia izaten da. Eta honela erakusten dute jarraian ikusiko ditugun adibideek:

5.1 EAE

Lurraldez lurralde onetsi diren erreforma fiskal ezberdinek erakutsi dute guztiak gauza berdin bat dutela, hots, guztiak ere hutsalak direla. Adibidez, PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren erreformak 2012an sartu ziren indarrean, eta EAE osoan, 180 milioi euro ere ez zuten bildu (hau da, BPGaren % 0,3 inguru). Eta horrek, begi-bistakoa denez, ez du balio Europarekin dugun alde handi hori murrizteko. Gauza bera esan daiteke, ELAk nabarmendu duen bezala, 2012. urtearen bukaeran eta 2013aren hasieran EAEko hiru lurraldeetan onetsitako erreformez.

Halaber, badago beste kontu oso deigarri bat: hots, Raxoik aldaketa batzuk egin ditu PFEZean eta Sozietateen gaineko Zergan, eta, horren ondorioz, zerga horien tasak eta dirua biltzeko ahalmena handitu dira. Horrek, beraz, agerian utzi du zeinen hutsalak diren EAEko hiru Batzar Nagusietan onetsitako erreformak.

Politikarien hipokresiaren beste adibide bat aipatze aldera, horra hor EAJk Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten taldeei fiskaltasunaz egindako proposamena; joan den urtarrilaren 28an egindakoa da. Merezki du proposamen hori aztertzea, bertan adierazia baitago zer-nolako bide-orria markatu nahi duen Eusko Jaurlaritzan agintzen duen taldeak zerga kontuetan. Proposamena zehaztuta ez badago ere, ELAk uste du ez diela inola ere erantzuten egun dauden premiei, ez baitu aurrerapausorik eragingo zerga-sistema zuzenago eta solidarioago baterantz jotzeko, eta ez du behar adina diru-sarrerarik eragingo egun gizartean dauden premia handiei aurre egiteko. Hona hemen, zehazki, proposamenaren edukia:

Gizarteari zerga kontuetan parte hartzeko atepak itxiko dizkio. Gaur egun, ezein Aldunditan ez dago fiskaltasunaren inguruko

eztabaida edo kontsulta prozesurik, ez formalik, ez informalik. EAJk “alderdi politikoen ordezkari batzorde bat eratzea” proposatu du, PFEZean, Sozietateen zergan, Ondorengotzan eta Dohaintzetan, eta Ondarearen gaineko zergan erreformak erabakitzeko. Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak Zerga Koordinaziorako Organora eramango zituzten akordioak, eta gero, kasuan kasuko Batzar Nagusietara bidaliko ziren, akordioak oneste aldera. Hitz batez, gizarteak inola ere parte hartu gabe.

Kontraesana, beraz, handia da. Izan ere, esaten da zergei buruzko erabakiak herrialde bakoitzean hartu behar direla, baina aldi berean adierazten da alderdiek erabakitako huraxe onetsi behar dela. Formalki, proposamenak hauxe dio hitzez hitz: “Lehenengo eta behin, erakunde eskudunek, hau da, Herrialde Historikoetako Batzar Nagusiek eta Foru Aldundiek baino ezin izango dute oraingo erakunde markoan, zerga erreforma honetan parte hartzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna izan”. Baina egiazki proposamenak dio erabakiak alderdiek hartu behar dituztela eta herrialde guztietan aplikatu behar direla. Begi-bistakoa da askoz ere demokratikoagoa dela fiskaltasunari buruzko erabakiak Eusko Legebiltzarrean hartzea.

Uko egiten dio iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeari. Ez du inolako neurririk eta konpromisorik proposatu, soldatetik ez datozen errenten ikuskapen-portzentajea handitzeko. Ikuskapen-portzentajea % 1,2 da, eta horrek azaltzen du zergatik dagoen horren iruzur maila altua kolektibo horien artean. Neurri batzuk jaso dira, baina zehaztu gabe: zehapen-erregimena berrikusi eta gogortzea, zergazorra kobratzeko bermeak handitzea eta informazioa emateko derrigorra zabaltzea.

Ez du atzera egiten azken urteotan PFEZean onetsitako erreformetan. Zehaztapen handiagorik ezean, esan dezakegu tarifaren aldatetak oso txikiak izango direla eta zergadun oso gutxiengan izango dutela eragina. Ez da proposatu kapitalaren errentei ematen zaien tratu desberdina ezabatzea; esan dezagun, tratu hori erabat onartezina dela.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko proposamenak ez doaz joan beharko luketen norabidean. Ez dago inolako proposamenik azken urteotan egin den politika aldatzeko, eta azken urteotan zerga hori nabarmen murriztu da. Beraz, ez da proposatu zergaren tasa nominala berriro ere % 35 izatea eta, gainera, hauxe iragarri da: “hori dela eta, inbertsiorako neurri erakargarriak, enpresen

kapitalizazioa sustatzeko neurriak eta jarduera produktiboak eta ikerkuntza, garapena eta berrikuntza babesteko ekimenak, Sozietateen gaineko Zergaren erreforma bideratzeko Ipar orratza osatuko dute". Hau da, badirudi are gehiago sakondu nahi dela azken urteotako bidea.

5.2 NAFARROA

Haxe bera gertatzen da Nafarroan ere. Propaganda eta adierazpen ugari izaten da, baina azkenean, betiko eskuin-politikak hitzartzen dira UPNren eta PSNren artean, PPK lagundurik.

Horrela gertatu zen, joan den abenduan, Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordean zerga arloko hainbat neurri hitzartu zirenean:

Aldaketa horiek 65 milioi euroko diru-bilketa bakarrik eragin dute, eta dirutza hori hutsala da. Izan ere, aski da gogoratzea Nafarroako Gobernuak 2013rako aurkeztutako aurrekontuak 224 milioi eurotan murriztu zuela gastua; hau da, hiru bider eta erdi gehiago, onetsitako erreformen bidez bilduko dutela diotena baino.

Itxura hutseko aldaketak dira, apaingarri hutsak. Hau da, UPNk, PSNk eta PPK ukitu txikiak hitzartu dituzte, eta gehien dutenei zerga gehiago jartzen zaizkiela esateko propaganda hutsa da (neurri horrek, izan ere, 784 zergadun soilik ukituko ditu, eta milioi 1 euroko diru-bilketa eraginen du). Eta, nolana ere, esan behar da Raxoik Espainiar Estatuan onetsitakoaren azpitik gelditu dela. Sozietateen gaineko Zergako aldaketen ondorioz, enpresek behar baino askoz ere diru gutxiago ordaintzen dute lortzen dituzten etekinengatik.

Ondarearen gaineko Zergan onetsitako aldaketak (kasu honetan, PSNk, Bilduk, NaBaik eta Izquierda-Ezkerrak onetsitakoak) hein batean bakarrik eman dio buelta aurretik indarrean zegoen zergari. Izan ere, zerga hori kendu zenean, Nafarroako Gobernuak 2009an 70 milioi euro gutxiago bilduko zirela kalkulatu zuen; eta, joan den abenduan onetsitako akordioaren ondorioz, aldiz, 25etik 30 milioira bitarte euro gehiago bilduko dira.

Ez da inolako neurririk hartu iruzur fiskalari aurre egiteko. Iruzur fiskala izugarria da; gero eta handiagoa, gainera. Hala ere, horri buruzko azterlan bat egitea onetsi da hemendik urtebeterako; horixe besterik ez.

Dena den, aipatu beharra dago zer-nolako saiakera egin zen 2012ko abuztuan, UPNk bultzatuta, fiskaltasunaren gaineko eztabaida Parlamenturik kanpora ateratzeko, non eta Moderna Fundazioaren eremuan aztertzeke. Zehazki, UPN organo bat sortzen saiatu zen Moderna Fundazioaren baitan, han bertan zerga-politika erabakitzeke. Ideia hori, dena den, ez zen azkenean aurrera atera.

Moderna Fundazioa fundazio pribatua da, nafar eliteez osatua dago (UPN, PSN, Opus, patronala, UGT eta CCOO) eta Plan Modernaren barruan sortu zen. ELAk hasieratik beretik esan eta kritikatu du plan horren bidez sortu den organismoari eman nahi izan zaiola Administrazio Publikoari dagokion erabakimena, zertarako eta eremu publikoari dagozkion erabakiak hartzeke; fiskaltasunari buruzko erabakiak, besteak beste. Hori egiten da, gainera, inolako irizpide demokratikorik eta gardentasunik gabe. Hau da, oso iluna da, eta ez dakigu, esaterako, zenbat diru publiko bideratu den Fundazioaren aurrekontura.

UPNren saiakera horrek agerian utzi du zer-nolako izaera demokratiko eskasa duten nafar eliteek horren gai delikatu eta garrantzitsua eztabaidatzean. Hau da, erabakiak eremu pribatuan hartu nahi dituzte, inolako irizpide demokratikorik gabe, eta erabateko ilunkeriaz jokatuta.

PSNren taktika ez da oso desberdina. Behin eta berriz mintzatzen da jendaurrean iraultza fiskalaren alde, baina azkenean UPNrekin eta PPrekin egiten ditu hitzarmenak, zertarako eta gauzek bere horretan iraunarazteko, inolako aldaketarik ez egiteko. Dena da propaganda eta publizitate hutsa.

6. ELAREN PROPOSAMENAK ZERGA KONTUETAN.

Txostenean hainbat aldiz erakutsi dugun bezala, defizit handia dago Hego Euskal Herrian zerga bidezko diru-bilketari dagokionez, eta ahalik eta lasterren zuzendu behar da. Egungo abagunea ikusita, izan ere, erabat premiazkoa da diru-sarrera publikoak lortzea, gastu sozialera bideratu ahal izateko.

Agiriak, era berean, injustizia fiskal toleraezina jarri du agerian. Gizartea muga-egoeran dago hainbeste funts-desbideratze, eskandalu eta hainbesteko ustelkeria... agoantatzeko orduan, eta jendeari beharrezkoa zaio gizarte kohesionatu eta justu bateko kide sentitzea. Zergadunek sentitu behar dute ez direla ordaintzen duten

bakarrak, jende guztiak dagokiona ordaintzen duela. Zerga-sistema, beraz, norabide horretan zuzendu beharra dago.

Atal honetako proposamenek diru-bilketako defizitari bukaera ematea dute helburu, horren bidez, injustizia fiskala ezabatzeko.

6.1 IRUZUR FISKALAREN AURKAKO BORROKA

Iruzur fiskala, nagusiki, soldatari lotuta ez dauden errentek egiten dute, eta HEHko zerga-sistemaren gaitz nagusia da. Horrenbestez, honelako neurriak hartu behar dira:

- Zerga-itzurpena ezabatu behar da; hau da, zerga gutxiago ordaintzea zilegi egiten duten lege-mekanismoak ezabatu behar dira. Horrelako mekanismoak, bereziki, aberats handiek eta enpresek erabiltzen dituzte, eta edozein lan-errentak baino zerga gutxiago ordaintzen dute. Egungo zerga-sistema errotik da bidegabea, eta onartezina da legeak horrelako zerga-sistema bati babes ematea.
- Gaur egungo zerga-itzurpenerako dauden molde berrien aurka borrokatu behar da. Izan ere, errealitate berri baten ondorio dira, eta jarduketa molde berriak eta baliabide berriak behar dira, haren aurka borrokatzeko. Esate baterako, hortxe ditugu hainbat estatutan diharduten multinazionalak; azkenean, ahalik eta gutxiena non ordain dezaketen, hantxe ordaintzen dute.
- Soldatari lotuta ez dauden errenta guztiak gehienez ere bost urteko epean ikuskatzea: PFEZan, Sozietateen gaineko Zergan eta BEZe an. Horrek esan nahi du urteko ikuskapenek % 1,2tik % 20ra igo beharko dutela, kolektibo horri dagokionez.
- Giza baliabideak nabarmen handitzea, ikuskapen gehiago egiteko behar diren bitartekoekin bat. Delitu ekonomikoak ikertzeko unitateak bultzatzea.
- PFEZaren zenbatespen objektiboaren araubidearen moduluak ezabatzea. Sistema horren bidez, izan ere, zilegi da zerga gutxiago ordaintzea PFEZaren tarifa aplikatzetik ordaindu beharko lirartekeenak baino.
- Aldian behin, iruzur fiskalari buruzko azterlanak egitea.

6.2 SOZIETATEEN GAINKO ZERGA

Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskalak izan duen jaitsieraz gain, txostenak beste gauza bat ere utzi agerian: zerga horrek 27-EBren aldean duen presio-defizita. Horrenbestez, beharrezkoa da:

- Sozietateen gaineko Zergan % 35eko tasa nominal bakarra ezartzea.
- Kenkari fiskalak nabarmen murriztea; izan ere, gaur egungo kenkari fiskalen eraginez, tasa efektiboa nominalaren erdia baizik ez da.

6.3 ONDAREAREN GAINKO ZERGA

Ondarearen gaineko Zergak dirua biltzeko egiazko bitartekoa izan behar du. Izan ere, salbuetsitako minimoak altuak dira, eta tasa apalak aplikatzen dira; horren ondorioz, oso diru gutxi biltzen da. Gogoratu behar da zerga hau ezabatu aurreko azken urtean, 2007an, 180 milioi euroko bilketa eragin zuela. Orain, aldiz, 2012an berriro indarrean jarri denean, 115,50 milioi bakarrik bildu dira.

6.4 PFEZA

Zergaren egungo egitura zerga-sistema bidegabe baten oinarri da. Horrenbestez,

- PFEZaren eskalan galdutako progresibotasuna berreskuratu behar da. Orain arte egindakoaren kontrakoa egin behar da; hau da, errentarik apalenei tasa aplikagarria jaitsi behar zaie eta errentarik altuenena igo, oso urrun baitago duela urte batzuetako % 56tik.
- Kapitalaren errentek duten tratu pribilegiatua ezabatu behar da, Bizkaian eta Araban % 22ko tasa maximoaren arabera ordaintzen baitute, eta Gipuzkoan, % 23koaren arabera. Zergaren zerga-oinarriak bakarra izan behar du, diru-sarrera guztiak tratamendu bera izan dezaten. Kapital errentei errekgua ezarri beharko litzaieke.

6.5 GIZARTEAK PARTE HARTZEKO MEKANISMOA

Ogasunek ez dute inola ere zerga kontuei buruzko nahikoa informazio ematen, fiskaltasuna haien eskumen nagusia izanik ere. Zerga guztiak zehatz-mehatz ordaintzen dituztenek, langileriak oro

har, zer marko dagoen ezagutu behar dute. Gardentasuna funtsezkoa baita fiskaltasunean. ELAk, beraz, eskatzen du, aldian behin informazio nabarmen eta zehatza eman dadila, urtealdien artean konparatzeko modukoa, zerga bakoitzari eta ikuskaritzari buruzko kudeaketan dauden parametro garrantzitsuenen inguruan.

“Ogasuna denok bagara”, denok ere erabaki behar dugu. Prozesu parte-hartzaile bat egin beharra dago, zerga-politika definitze aldera, eta bitarteko instituzionalizatuak izan behar dira eskura, sindikatuak parte har dezaten. Zerga-erreformak egiterakoan, gizarteari kontsulta egin behar zaio, erreferenduma erabiliz.

6.6 ERABATEKO ESKUMENAK ZERGA ARLOAN

Gaur egun, zerga batzuk Espainiar Estatuan erabaki eta Hego Euskal Herrian kudeatzen dira, eta beste batzuk Madrilen erabaki eta bertan kudeatzen dira. ELAk zerga guztien gaineko legeak Hego Euskal Herrian egiteko eta kudeatzeko eskubidea aldarrikatzen du.

6.7 ZERGEN ARLOKO LEGEAK EUSKO LEGEBILTZARRETIK EGITEA

Maiatzaren 30eko 3/89 Zergapideen Elkar-egokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunen Legearen, bai Estatutuaren, bai Lurralde Historikoen Legearen eta Ekonomia Itunaren beraren interpretazioa ere argiak dira: lege maila duten arauak egiteko ahalmena bakar-bakarrik Legebiltzarrari dagokio, Batzar Nagusiek onartzen dutena Forua Arauak baitira.

Dena den, erreforma fiskalak Zerga Koordinaziorako Organoan hitzartu eta proposatzen dira, eta erakunde horretan ordezkaritza parekidea dute Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek. ELAk egoki ikusten du Eusko Legebiltzarrak zerga arloari buruzko legeak egitea.

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....
